



PLANGINTZA – NORK? NOIZ? NON? NOLA?

Orain zure ideia praktikan jar dezakezu, Ekintza Plana erabiliz. Hemen zure ideia guztiak antolatu ditzakezu, zure ekintzak arrakasta izan dezan.

EKINTZA PLANA	
EKINTZA ESPARRUA <i>(Laguntza eta babesa, sentsibilizazioa edo eragina)</i>	
GURE EKINTZA	
Ekintzaren bitartez sortu nahi dugun aldaketa (CHANGE)	

ZER EGIN BEHAR DUGU?	ZER PLANIFIKATU DUGU?	EMAITZAK- ZER GERTATU DA?
<p>HELBURUAK:</p> <p><i>Zer helburu lortu nahi dugu/ditugu? Zer aldatuko da gure ekintzaren ostean? Zer aldaketa lortuko dugu? Azaldu helburua xehetasunez, gerora bete ote den eta zein neurritan bete den baloratzeko.</i></p>		
<p>HELBURU PERTSONALAK:</p> <p><i>Zer helburu lortu nahi ditugu guretzako? Zer ikasi eta praktikatu nahi dugu? Zer aldaketa espero dugu/ditugu guregan?</i></p>		
<p>EKINTZAREN DESKRIBAPENA:</p> <p><i>Zer egin nahi dugu? Azaldu ekintza eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduera zehatzak.</i></p>		
<p>PROGRAMAZIOA:</p> <p><i>Noiz hasiko da ekintza? Zer egunetan egin behar litzateke gauza bakoitza? Noiz amaituko da guztiz?</i></p>		

<p>ERANTZUKIZUNAK:</p> <p><i>Nor da jarduera bakoitzaren erantzulea? Ba al dago ekintza guztia koordinatzen duen pertsonarik? Guztiek al dute norberaren gaitasun eta interesen arabera zereginen bat?</i></p>		
<p>BALIABIDEAK:</p> <p><i>Zer baliabide behar ditugu gure jarduerak burutzeko eta gure helburua erdiesteko? Egin zerrenda bat behar dituzuen baliabide guztiekin (teknologikoak, espazio fisikoak, material gehigarriak, dirua...).</i></p>		
<p>BABESA:</p> <p><i>Zein kide, babesle edo bestelako jendek lagundu eta babestu zaitzakete?</i></p>		
<p>HEDAPENA:</p> <p><i>Nola eman dezakegu gure ekintzaren berri eta aurretiaz jakinarazi? Zer erreminta behar ditugu ekintza honen berri emateko? (sare sozialak, posterrak, flyerrak, etab.)</i></p>		

EMAITZEN BERRI EMATEA:

*Nola emango dugu ekintzaren emaitzen berri?
Ekintza egin bitartean argazkiak ateratzeko arduradun bat izendatu. Sare sozialetan streaming bat egitea edo kazetari bati ekintzaren berri emateko eskatzea ere aukera ona dira.*

Ekintza Plana bete ostean, ziurtatu planteatu duzuen ekintza Ikasle Enbaxadoreen taldeko kide bakoitzarentzat nahikoa interesgarria eta estimulazailea dela. Gogoratu zuen ekintzak errealista izan behar duela eta dagokion epean burutzeko behar beste bitarteko izango dituzuela. Agian gauza batzuk aldatu beharko dituzue, guztia planarekin bat etortzeko.